

Ekintzailetza LEARTIBAI | 2024 | sariak

OINARRIAK

*Lea-Artibai eskualdeko
pertsonekintzaileak bistaratu
eta errekonozimendua ematen.*



Leartibai Fundazioa toki garapenerako erakundea da. Bere helburua Lea-Artibai eskualdearen garapen ekonomikoa sustatzea da eta horretarako eragile publiko eta pribatuak ditu bidelagun.

Enpresa berrien sorrera bere misioaren parte izanik eta Lea-Artibaiko pertsona ekintzaileei errekonozimendua emateko asmoz, Leartibai Sariak 2024 ekimena jarri du martxan.

1.- LEARTIBAI SARIAK 2024 EKIMENAREN HELBURUAK

- Pertsona ekintzaileak omentzea, errekonozimendua ematea.
- Ekintzailatza kultura hedatzea.
- Lea-Artibai eskualdean lanpostu berrien sorrera sustatzea.
- Kooperatiba ereduak sustatzea.
- Merkataritza sustatzea.
- Balio erantsi altuko enpresa berritzaileak sustatzea.
- Emakumeen artean, ekintzailatza sustatzea.

2.- SARIA JASOKO DUTEN KATEGORIAK

Sari ezberdinak banatuko dira, hona hemen sarituko diren kategoriatan ezberdinak:

1 Katetoria. NEGOZIO-IDEIA BERRITZAILA ONENARI SARIA: 2.000 € + garaikurra.

2 Katetoria. OSTALARITZA/TURISMO/ZERBITZU ENPRESA ONENARI SARIA: 1.500 € + garaikurra.

3 Katetoria. MERKATARITZA ESTABLEZIMENDU ONENARI SARIA: 1.500 € + garaikurra.

4 Katetoria. KOOPERATIBA EREDUARI SARIA: 2.000 € + garaikurra.

5 Katetoria. EMAKUME EKINTZAILARI SARIA: 500 € + garaikurra.

6 Katetoria. GAZTEEK SORTUTAKO NEGOZIO-IDEIA ONENARI SARIA: 2.000 € + garaikurra. (5 sari banatuko dira kategoriatan honetan, bakoitza 2.000 €koa).

SARE SOZIALETAN BOZKA GEHIEN JASO DUEN NEGOZIOARI eskualdeko elikagaiez osatutako otzara oparituko zaio.

SARE SOZIALETAN BOZKA EMAN DUEN HERRITARRARI eskualdeko elikagaiez osatutako otzara oparituko zaio.

3- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

1-2-3 Kategorietan: 2023 edo 2024an, Lea-Artibai eskualdean **negozio berri bat** martxan jarri izana (2024/10/31 baino lehen).

4 Kategorian: 2023 edo 2024an, Lea-Artibai eskualdean **kooperatiba eredu** duen **negozio berri bat** martxan jarri izana (2024/10/31 baino lehen).

5 kategorian: **Lea-Artibaitarra, emakumea eta ekintzailea** izatea. Kasu honetan, 2023 edo 2024an **negozio berria** martxan jarri izana (2024/10/31 baino lehen) sarituko da. Bateragarria da beste kategorietako sariekin.

6 Kategorian: **18-35 urte bitarteko Lea-Artibaitarra** izatea eta 2023 edo 2024an **negozio berri bat** martxan jarri izana (2024/10/31 baino lehen). Honako herriren baten erroldatuta izatea ezinbesteko baldintza izango da: Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar Arbatzegi Gerrikaitz, Ondarroa, Ziortza-Bolibar.

KONTUTAN IZATEKOAK:

- Kategoria guztietan, ezinbesteko baldintza izango da enpresa berrien egoitza soziala Lea-Artibaiko 12 udalerrietako baten izatea.
- Leartibai Fundazioak, proiektuak baloratzeko orduan, beharrezko dituen ziurtagiriak eta informazioa eskatu ahal izango ditu.
- Soilik emakume ekintzailearen saria da bateragarria gainontzeko sariekin.
- Aurkeztutako egitasmoen maila baxuegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean gera daitezke.

4.- SARIAK

1. Kategoria: NEGOZIO-IDEIA BERRITZAILE ONENARI SARIA. **Leartibai Fundazioaren eskutik**

- 2.000 € esku dirutan eta garaikurra.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegiko espazioetan kokatzeko lehentasuna.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.

2. Kategoria: OSTALARITZA/TURISMO/ZERBITZU ENPRESA ONENARI SARIA.

Leartibai Fundazioaren eskutik

- 1.500 € esku dirutan eta garaikurra.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegiko espazioetan kokatzeko lehentasuna.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.

3. Kategoria: MERKATARITZA ESTABLEZIMENDU ONENARI SARIA.

Leartibai Fundazioaren eskutik

- 1.500 € esku dirutan eta garaikurra.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.

4. Kategoria: KOOPERATIBA EREDUARI SARIA. Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkartearen eskutik

- 2.000 € esku dirutan eta garaikurra.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegiko espazioetan kokatzeko lehentasuna.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.
- Sari hau ezingo dute jaso Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkartearen dirulaguntza jaso izan duten kooperatibek.

5. Kategoria: EMAKUME EKINTZAILEARI SARIA Leartibai Fundazioaren eskutik

- 500 € esku dirutan eta garaikurra.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegiko espazioetan kokatzeko lehentasuna.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.

6. Kategoria: GAZTEEK SORTUTAKO NEGOZIO-IDEIA ONENARI SARIA Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Lea-Artibaiko 12 udalen eskutik

- 2.000 € esku dirutan eta garaikurra negozio bakoitzari. Guztira 5 sari banatuko dira.
- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegiko espazioetan kokatzeko lehentasuna.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.

SARE SOZIALETAN BOZKA GEHIEN JASO DUEN NEGOZIOARI Eskualdeko elikagaiez osatutako otzara oparituko zaio. Lea-Artibai Landa Garapen Alkartearen eskutik, Hamen Bertokoa egitasmoaren baitan.

SARE SOZIALETAN BOZKA EMAN DUEN HERRITARRARI Eskualdeko elikagaiez osatutako otzara oparituko zaio. Lea-Artibai Landa Garapen Alkartearen eskutik, Hamen Bertokoa egitasmoaren baitan.

5.- HERRITARRENTZAKO SARIA

Herritarrak ere epaimahaikide izango dira. Leartibai Fundazioak bere Instagramera igoko ditu lehiaketan parte hartzen duten ideia guztiak. Norbanakoek, azaroaren 8tik 15ra bitartean. Lea-Artibai eskualdearen beharretara hobekien egokitzen den ideia "atsegin dut" batekin klikatuz baloratu ahal izango du.

"Atsegin dut" ematen duten pertsona guztien artean, bertoko produktuekin osatutako otzara eder bat zozketatuko da azaroaren 18an. Zozketa horren irabazleari, saria azaroaren 21an emango zaio, sari banaketa ekitaldian. Bozkak eta lehiaketako partehartzaileak azaroaren 15ean, eguerdiko 12:00etan kontabilizatuko dira.

Saria jasotzera irabazlea edo berak nahi duen beste edozein pertsona joan ahal izango da, Leartibai Fundazioak eta irabazleak adosten dutenean. Leartibai Fundazioari pertsona horrekin kontaktatzea ezinezkoa egiten bazaio, edota sariaren bila ezin bada etorri, bigarren pertsona bati emango zaio aukera, modu berean. Bata zein besteak sariaren bila etortzerik ez badute, banatu gabe geldituko da.

6.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Tokiko enplegua sortzea: sortutako enplegu kopurua eta hazkunderako potentzialitatea. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatutako enpresen kasuan, bazkideen %50 gutxienez emakumeak izatea positiboki baloratuko da.
- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa.
- Izaera berritzailea, balio erantsia eskaintzea edo/eta originaltasuna.
- Ekintzaile taldearen gaitasun teknikoa eta esperientzia.
- Negozioa martxan jartzeko egindako inbertsioak, lokala alokatua edo erositakoa bada...
- Jarduera garatzeko teknologia berriak erabiltzea.
- Leartibai Fundazioaren enpresa sorrera zerbitzutik pasa izana.
- Merkatari elkarteko kide izatea.
- Guzti hauek justifikatzeko erabilitako ebidentzia grafikoak.

7.- EPEAK

- Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2024/10/31
- Herritarren botazioa: 2024/11/08-2024/11/15 (biak barne).
- Sari banaketa: 2024/11/21.

8.- EPAIMAHAIA

- Leartibai Fundazioko Ekintzailtzako lan-taldea.
- Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkarte.
- Instagram bidez bere botoa ematen duten herritarrak.

9.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Inskripzio fitxa beteta (Proiektua Leartibai Fundazioarekin landu dutenek ez dute fitxa hori bete beharrik izango).
- 6. kategorian parte hartzen dutenek, Errolda agiria.
- Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta eman izanaren kopia (IAE), Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiria eta landutako negozio-plana.
- Ideiaren baloraziorako lagungarri izan daitekeen edozein dokumentu, irudi, ikus-entzunezko aurkezpen edo/eta bideragarritasun plana.

10.- SARI BANAKETA EKITALDIA

Amoroton izango da, Udaletxeko Aretoan.

Azaroak 21, iluntzeko 19:00etan .

Sariak jasotzeko, beharrezkoa izango da sari banaketa ekitaldira bertaratzea. Irabazleak bertaratu ezingo lukeen kasuan, beste pertsona bat bertaratu beharko da bere ordean. Sari banaketara bietako inor agertu ezean, sari hori banatu gabe geratuko da.

Saridunarekin kontaktatzea ezinezkoa den kasuetan, hurrengo balorazio onena duen ideia izango da saritua.

11.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA INSKRIPZIO ORRIA

Inskripzio orriak beteta email honetara bidali beharko dira bbasterretxea@leartibaifundazioa.eus beharrezko dokumentuak ere bertan atxikituz.

Edozein kontsulta telefonoz edo WhatsApp bidez erantzungo da, honako zenbaki honetara deituta/idatzita: 94 616 91 72.